

"Zazpi urkatuak"
Leonid N. Andreiev
euskaratzailea: Jose Morales
Alberdania / Elkar, 2006

Joxe Azurmendik *Iraultza sobietarra eta literatura* (1975) saiakeran esandakoari kasu eginez gero, duela 30 bat urte euskal irakurleen artean literatura errusiarrak jarraitzaile sutsurik bazuen. Ziur asko, gizarte egoerak sorturiko jakin-minak ere hartaraturik. Orduko egoera haren erakusgarri, horra hor saiakera huraxe. Lehen hurbilpen batean, antza, literatura errusiarrak ez du halako miresmenik sortu belaunaldi gazteagoengan, ez behinolakoak, ez garaikideak. Nolanahi ere, hogeita hamar urte hauetan literatura errusiarrak jaso du bestelako arreta berezirik gure artean, itzultzaileena. Literatura Unibertsala saila abian jarri zenetik, izan ere, literatura errusiarrak izan du lekurik: Txekhov, Tolstoi, Dostoievski, Gorki, Lermontov, Pushkin, Gogol, Turgenev. Aipatu idazle gehienak XIX. mendean jazoriko literatura errusiarraren loraldiaren seme dira, Maxim Gorki izan ezik, mende berriranzko aldaketaren erakusle dena. Gorkiren garaikide, miresle, lankide eta adiskide izan zen Leonid Nikolaievitx Andreiev bera, hain zuzen, Literatura Unibertsala sailaren 119. aleak aurkeztu berri digun idazle errusiarra. *Zazpi urkatuak* lelopeko ale honetan, Andreieven hiru narrazio luze bildu dira: "Zazpi urkatuak", "Ilunpeak" eta "Espektoak".

Lehen narrazioan, heriotza-zigorra ezarri zaien zazpi lagunentzako heriotza aurreko egoerak dira kontagai; bigarrenean, prostituta bat eta bere burua heriotz arriskuan ikusten duen ekintzaile baten arteko harremana da kontagai; eta hirugarrenean, zoroetxe bateko gaixo batzuen arteko harremana da kontagai. Nola edo hala, heriotzaren inguruko sentimenduek harilkatzen dituzte hiru narrazio hauek: heriotza aurrez aurre izatean sentituriko beldurra, poza, samina, kezka, oinazea, axolagabekeria, handiustea, eta abar. Hiruretan, bada, heriotzaren itzal luzea: izan heriotzaren zain daudelako, izan hilezkor sentitzen direlako, izan hilik sentitzen direlako.

Narrazio hauek irakurtzen ari nintzela, ezinezkoa izan zait Txekhoven itzal luzerik ez arnastea. Pertsonaien barne-munduetan arakatzeko joera bere-berezkoa du Txekhovek, eta nire ustean, Andreieven ipuingintzaren alderdirik aipagarriena ere pertsonaien egoerak eta sentimenduak deskribatzeko gaitasunean datza. Gainera, Andreieven ipuinetan Txekhoven erritmo mantso eta tonu melankoniatsuaren oihartzuna bada, bi-biek pertsonaien psikologian sakontzeko eta irakurlearengan emozioak mugiarazteko hain egoki erabilitako baliabideak. Dena dela, bada alde aipagarriarik, garaian garaiko gizartearen egoerarekin oso loturikoa, gainera. Txekhoven ipuinetan eguneroko ekintzak azalaraziz bizitzaren alderdi xumeen tragediak eta giza izaeraren huskeriak aurkezten dira. Andreieven ipuinetan, aldiz, egoera tragikoenetan ere ezkututzen diren bizitzaren alderdi xumeak, egunerokoak eta ohikoak dira kontagai.

Hiru narrazio hauetan luzeena eta landuena bildumari izena eman dion "Zazpi urkatuak" narrazioa da, heriotz-zigorraren aurreko zazpi lagunek harturiko jarreraren sakontzen duena, eta harreman-sare aberatsena sortu duena. Nolanahi ere, Andreieven narrazio hauetako zenbait pasartetan narratzailearen erabilerak huts egin duela iruditzen zait, batik bat fokatzaren erabileran. Nire ustean, epaile izan asmo ez duen narratzaileari epailetzarako joera gailentzen zaio tarteka-marteka. "Zazpi urkatuak" narrazioan esate baterako, deskribatzaile eta behatzaile izan nahi duenari, epaile isuriak ihes egiten dio. Akaso, (egilearen ahotsak) heriotzaren gerizpeari beldur.